

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 432/2022 Erabakia, uztailaren 19koa. Onestea Arabako enpresetan kontratazioa sustatzeko laguntzen 2022ko ekitaldirako deialdia

2022ko apirilean erregistratutako langabezia datuen arabera, 19.683 langabe daude, eta gure lurraldean erregistratutako langabezia indizea ehuneko 11,7 da, EAeko batez bestekoa (ehuneko 10,7) baino handiagoa. Datu horiek erakusten dute langabeziak bilakaera positiboa izan duela gure lurraldean: iazko hil beraren aldean 1.950 langabe gutxiago izan dira, eta langabezia tasa ehuneko 9,1 jaitsi da.

Arabako langabeziaren eskualde azterketari esker, kuadrillen batez besteko langabezia indizearen arabera, honako hau ikus dezakegu: Gasteizek du langabezia tasarik handiena (ehuneko 12,1), eta ondoren Aiaraldeak (ehuneko 10,4), Guardia-Arabako Errioxak (ehuneko 9), Añanak (ehuneko 7,7) eta Arabako Lautadak (ehuneko 7,1), eta tasarik txikienak, aldiz, Gorbeialdeak (ehuneko 6,5) eta Arabako Mendialdeak (ehuneko 5,9).

Zifra horiek bilakaera positiboa erakusten badute ere, ez dira iristen koronabirusaren ondorioz izandako alarma egoeraren aurreko langabezia tasetara, baina egoera ekonomikoaren susperraldia berresten dute, espero zena baino motelago izan arren.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jo du abian jartzea kontratazioa sustatzeko beste dirulaguntza deialdi bat, zeinaren xedea baita enpresei laguntza ematea eta osasun krisialdian lana galdu duten langileak laneratzen laguntzea. Era berean, biztanleria aktiboaren okupazioa handitu eta kalitatezko enplegu egonkorra gehitu nahi da, eta bere ezaugarrien artean gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, berrikuntza eta gizarte eta lurralde kohesioa dauzkan lan merkatu bat ere lortu nahi da.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneren eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Langileak urte osoan kontratatzen direnez eta deialdiaren izaera eta helburuarengatik, egokia dela jotzen da laguntzak lehia irekian ematea.

Ahalik eta gehien zabaltzeko eta publikotasun, lehia eta objektibotasun eta berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak behar bezala betetzeko, nahitaez ezarri behar da laguntzen deialdia, eta deialdi horri lotu beharko zaizkio 2022ko ekitaldian kontratazioa sustatzeko laguntzak.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hartutako

ERABAKIA

Lehenengoa. Kontratazioa lehia irekiko prozeduraren bidez sustatzeko laguntzen 2022 deialdi publikoa onartzen da, erabilgarri dagoen aurrekontuaren esparruaren barruan. Gehienezko hornidura 841.313,50 eurokoa izango da eta deialdia Erabaki honi eranstean zaio.

Bigarrena. Deialdia arautzen dute Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntzak lehiaketa araubidean emateko oinarri orokorrek (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua), eta ebazpen honen eranskinean xedatutakoek.

Hirugarrena. 320.998,00 euro adjudikatuko dira ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzetan, honela banatuta: 224.698,60 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko 22.1.22.30502. G/241300/46290304 (xedapen erreferentzia: 105.3031/000) gastu partidaren kontura eta 96.229,40 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko konpromiso kredituaren 22.3.23.30502. G/241300/46290304 (xedapen erreferentzia: 105.164/000) kontura. Lanbidek Arabako Foru Aldundiari eman beharreko dirulaguntzatik datoz funtsak.

Aurreko partidetak kreditua agortzen denean, dirulaguntzak gehienez 520.315,50 euroan adjudikatuko dira, banaketa honen arabera: 364.220,85 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko 22.1.22.30502. G/241300/47000300 (xedapen erreferentzia: 105.3030/000) gastu partidaren kontura eta 156.094,65 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko konpromiso kredituaren 22.3.23.30502. G/241300/47000300 (xedapen erreferentzia: 105.163/000) kontura. Lanbidek Arabako Foru Aldundiari eman beharreko dirulaguntzatik datoz funtsak.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Era berean, aurrekontu transferentziak egin ahal izango dira geroagoko urtealdietara, ordaintzen plangintza aurkeztutako eskaerei egokitzeko.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA KONTRATAZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

2022ko deialdiaren oinarriak

1. artikulua. Helburua

Deialdiaren helburua biztanleria aktiboaren enplegua ematen laguntzen duten Arabako enpresek langabetuak kontratatzea sustatzea da.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehienezko guztizko zenbatekoa

2.1. 320.998,00 euro adjudikatuko dira ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzetan, honela banatuta: 224.698,60 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko 22.1.22.30502. G/241300/46290304 (xedapen erreferentzia: 105.3031/000) gastu partidaren kontura eta 96.299,40 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko konpromiso kredituaren 22.3.23.30502. G/241300/46290304 (xedapen erreferentzia: 105.164/000) kontura. Lanbidek Arabako Foru Aldundiari eman beharreko dirulaguntzatik datoz funtsak.

Aurreko partidetak kreditua agortzen denean, dirulaguntzak gehienez 520.315,50 euroan adjudikatuko dira, banaketa honen arabera: 364.220,85 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko 22.1.22.30502. G/241300/47000300 (xedapen erreferentzia: 105.3030/000) gastu partidaren kontura eta 156.094,65 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko konpromiso kredituaren 22.3.23.30502. G/241300/47000300 (xedapen erreferentzia: 105.163/000) kontura. Lanbidek Arabako Foru Aldundiari eman beharreko dirulaguntzatik datoz funtsak.

Era berean, aurrekontu transferentziak egin ahal izango dira geroagoko urtealdietara, ordaintzen plangintza aurkeztutako eskaerei egokitzeko.

2.2. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Hauek jasoko ahalko dituzte deialdi honetan jasotako dirulaguntzak:

- Enpresa ertain eta txikiak (EET), egoitza soziala eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan dutenek eta, gutxienez, Arabako Lurralde Historikoan lan zentro bat kokatuta dutenek.
- Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukaten autonomoak.
- Lan zentroa Arabako Lurralde Historikoan duten Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta erakundeak.

3.2. Deialdi honen ondorioetarako, enpresa bat EET izango da 250 soldatapeko baino gutxiago badauka, haren urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez bada edo haren urteko balantzea 43 milioi eurotik gorakoa ez bada.

3.3. Onuradun guztiek Araban izan beharko dute zerga egoitza eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki beharko dituzte, bai dirulaguntza emateko ebazpena hartzeko garaian, bai dirulaguntza ordaintzeko garaian. Ebazpena eman aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13.1 artikuluko e) apartatuan zehaztutakoa hartuko da kontuan.

Onuraduna sozietate zibil bat bada, egiaztatu behar da bai sozietateak, bai bazkide guztiek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; beraz, kasu horretan, eskabidearekin batera, sozietatearen eratze agiria aurkeztu beharko da (publikoa edo pribatua), bai eta sozietateko partaide guztiak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean daudela egiaztatzen duten agiriak ere.

3.4. Enpresa onuradunek batez besteko plantilla mantendu edo handitu beharko dute diruz lagundutako kontratazioaren bidez.

Enpresako plantilla mantendu edo handitu dela egiaztatzeko, onuradunak frogatu beharko du kontratua egin den eguneko batez besteko plantilla kontratua egin aurreko sei hilabeteetako edo handiagoa dela, kontratazioa mugagabea nahiz aldi baterakoa izan.

3.5. Enpresa onuradunek langileei jakinarazi beharko diete Arabako Foru Aldundiari diru laguntza eskatu diotela beren kontratuengatik.

3.6. Ezingo dute dirulaguntzarik jaso:

– Sektore publikoko administrazioek, erakundeek eta enpresek. Haien barruan sartzen dira kontrolatzeko edo zuzentzeko edo gobernu organoetako kide gehienak izendatzeko boterea administrazio publikoen eskuetan daukaten erakundeak eta enpresak, edo haien ondarea edo finantzabidea, zuzenean nahiz zeharka, gehien bat funts publikoak badira edo haietatik badator.

– Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan xedatutako debekuren bat daukaten enpresek edo erakundeek.

– Administrazioan eta auzitegietan dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dien zigorren bat duten edo horretarako ezintzen duten legezko debekuren bat daukaten enpresek, sexu arrazoiaren ziozko bereizketagatik jarritakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

– Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizkeria eragiten duten erakundeak ezin dira izan onuradunak, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan.

– Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jasan duten pertsona fisiko edo juridikoek, harik eta zehapenean ezarritako epealdia amaitu arte, ez eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaien ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko ogasun nagusiaren antolarauetarako buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 50.5 artikuluan jasotzen duenez, Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean idatzitakoaren arabera.

3.7. Dirulaguntzaren onuradun izateko betekizunak egiaztatzea beharrezkoa izango da dirulaguntza ematea erabakitzeko. Halaber, betekizun horiei eutsi beharko zaie aldi lagungarri guztian zehar.

4. artikulua. Diru laguntza jaso dezaketen jarduerak

4.1. Arabako lantokietan langabeak kontratatzea diruz lagundu daitezkeen jardueratzat hartuko dira.

Diru laguntza jaso dezaketen kontratuak hauek izango dira:

– Kontratu mugagabeak.

– Iraupen mugatuko kontratuak, produkzioko gorabeherengatik egindako kontratuak direnean, gehienez ere 6 hilabeteetakoak, produkzioko gorabeherengatik 12 hilabetera arte luza daitezkeenak sektoreko hitzarmenen bidez. Produkzioko gorabeherak dira noizbehinka eta aurreikusitako ezinezko moduan produkzioa handitzea edo produkzioan oszilazioak egotea eragiten duten gorabeherak, eta, enpresaren ohiko jarduera izanik ere, dauden lanpostu egonkorren eta behar diren artean behin-behineko desoreka eragiten dute.

Kontratu horiek indarreko lanaren legedia bete beharko dute.

4.2. Iraupen mugatuko kontratuak, dirulaguntza jaso ahal izateko, lanaldi osokoak izan behar dute. Kontratu mugagabeak soilik izan ahalko dira lanaldi partzialekoak, baldin eta gutxieneko lanaldia ehuneko 70ekoa bada.

4.3. Emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da, dagozkion interesekin, enpresaren borondatez kontratua iraungitzen bada honako kasu hauetako edozeinetan:

– Kontratu mugagabeetan, kontratua egin den egunetik 12 hilabete igaro baino lehen iraungitzen badira.

– Iraupen mugatuko kontratuak, hitzartutako amaiera eguna baino lehen iraungitzen badira.

Kontratua enpresaren borondatez kanpoko zioengatik iraungitzen bada (langilearen beraren borondateagatik, hiltzeagatik edo lanerako ezintasunagatik), emandako dirulaguntza hainbanatu egingo da.

Kontratu mugagabeen kasuan, eta dirulaguntzaren xede den langileak aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteen eragina jasan badu, lehenago ezarritako 12 hilabeteko aldia gehitu egingo da langilea ERTEen egon den denborarekin.

3.4 Hona diru-laguntza horietaz baliatu ezin daitezkeenak:

– 3 hilabete edo gutxiagoko kontratuak.

– Aldizkako kontratu finakoak, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak eta praktikaldiko kontratuak.

– adostasunez edo borondatezko bajaz lan harreman mugagabe bat amaitu duten pertsonen kontratazioak, deialdi honetan laguntza eskatzea eragin duen kontratua sinatu aurre-aurreko hamabi hilabeteko epean, langileak autonomo gisako jarduera uzteari dagokion bajaren kasuan izan ezik, edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, baja horren arrazoia kalitate handiagoko enplegua lortzea edo bere ikasketa mailara egokitzea izan ezean.

– Enpresan bertan edo talde bereko enpresetan lan jarduera bertan behera utzi duten pertsonen kontratazioak, baldin eta jarduera bertan behera utzi badute deialdi hau onetsi baino 30 egun naturalen eta eskaerak aurkezteko epearen amaieraren arteko denbora tartean. Talde bereko enpresatzat joko da Europar Batzordearen ETE kontzeptuaren definizioaren arabera edozein enpresa elkartu edo/eta lotu (Batzordearen 2003/361/EE Gomendioa, mikroenpresen, enpresa txikien eta ertainen definizioari buruzkoa). Deialdi honen ondorioetarako, ez dira lan harremanatzat hartuko 28/2018 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian araututako prestakuntza praktikak, lanekoak ez diren praktikak eta kanpoko praktika akademikoak, baldin eta praktika kontratuaren modalitatean sartzen ez badira. Eskatzaileak frogatu egin beharko du, irakaskuntza erakundearekin sinatutako hitzarmena edo antzeko dokumentua aurkeztuta.

– Aldi baterako laneko enpresek kontratatutako pertsona enpresa erabiltzaileetan zerbitzuak emateko jartzeko egindako kontratazioak.

– Arabako Foru Aldundiak, haren enpresek eta gainerako erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko egindako lan kontratuak.

– Urriaren 234ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen estatutuaren Legearen testu bateginaren 2.1 artikulua aipatzen dituen izaera bereziko lan harremanak. (familia etxeko zerbitzua, artistak ikuskizun publikoetan, enplegu zentro berezietan zerbitzuak ematen dituzten langile desgaituak).

4.5. Erakunde eskatzaile bakoitzeko bost kontrataziorako dirulaguntza emango da gehienez azken hiru ekitaldietan (deialdi honen eta aurreko bienak barne) eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratuta egon beharko dute.

5. artikulua. Kontratzen diren pertsonen baldintzak

Kontratzen diren pertsonen, indarreko legedian eskatutako baldintzak ez ezik, baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

– Langabezian egotea. Araudi honen ondorioetarako, pertsona bat langabezian dagoela joko da, baldin eta ez badago Gizarte Segurantzako erregimenetako batean izena emanda kontratazioa egin baino, gutxienez, bost egun natural lehenagotik, edo enplegatu gisa agertuta ere lanaldi arrunt oso baten ehuneko 10 edo gutxiagoko ehunean badago.

– Lanbide enplegu eskatzaile moduan izena emanda egotea, kontratazioa egin baino, gutxienez, bost egun natural lehenagotik.

– Diru-laguntzaren xede den pertsona kontratatu aurreko sei hilabeteetan gutxienez Gasteizko udalerrian erroldatuta egon izana, eta laguntza eman arte erroldatuta jarraitzea.

– Enpresaren zuzendaritzan karguak dauzkaten edo enpresen administrazio organoetako kideak direnen lehen edo bigarren mailako odolkidetasuneko edo kidetasuneko harremanik ez izatea.

– Enpresan partaidetzarik ez izatea, ezta, halakorik balego, talde bereko enpresetan, eta partaidetzarik ez eduki izana kontratazioaren aurreko urtean.

6. artikulua. Kontratazioak egiteko epea

Diruz lagundu daitezkeen kontratazio mugagabeak 2021eko azaroaren 1etik 2022ko urriaren 31ra bitartean hasi beharko dira, bi egun horiek barne.

Diruz lagundu daitezkeen iraupen mugatuko kontratuak deialdi hau argitaratzen denetik 2022ko urriaren 31ra bitartean hasiko beharko dira, bi egun horiek barne.

7. artikulua. Kontratutako pertsonen bajak

7.1 Kontratu mugagabeen kasuan soilik, eskatzen den araudi honen 4.3 paragrafoan ezarritako gutxienerako aldiaren kontratatutako pertsonak langilearen beraren borondateagatik, hiltzeagatik, lanerako ezintasunagatik edo enpresaren borondatez kanpoko zioengatik baja hartuko balu, lehenago kontratatutakoaren eginkizun eta baldintza berak dituen beste langile bat kontratatuz ordeztu ahalko luke enpresak, bajaren aurreko 15 egun naturaletan edo ondorengo 30 egun naturaletan.

Kasu horretan, gertatutako bajaren kausak eta kontratazio berria jakinarazi beharko ditu, kontratu berria egin eta hurrengo egunetik 15 egutegiko eguneko epean, horren frogagiriak erantsiz (kontratu berriaren kopia, Gizarte Segurantzako alta eta errolda ziurtagiria, kontratatutako pertsona berriaren NANaren eta lan bizitzaren kopia).

Araudi honetan, diziplinazko kaleratzeak ez dira enpresaren borondatezkoztat joko, baldin eta ebazpen judizialak kaleratzea bidezkoztat jotzen bada. Ondorioz, enpresak Arabako Foru Aldundiari bidali beharko dio kaleratze horri buruzko dokumentazio guztia, egiaztatzeko adostua edo bidezkoa izan dela (adiskidetze ekitaldiaren akta, lan arloko epaitegiaren epaia...). Ez da ordezkapenik onartuko kaleratzea bidegabekotzat edo deuseztat jotzen bada.

Dokumentazio hori aztertuta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak ordezkapena onartzen duen erabakiko du, lehenago esleitutako laguntzaren onurei eutsiz edo, ordezkapena frogatzen ez bada, laguntzaren hainbanaketa egin edo itzuli behar den.

Kontratu berriaren nahiz kontratatutako pertsonaren ezaugarriak aldatzeak ez du inolaz ere ekarriko hasieran esleitutako zenbatekoa handitzea.

12 hileko gutxienerako epea zenbatzeko lehen pertsona kontratatuari nahiz ordezkari pertsonari dagokien kontratuaren denbora hartuko da kontuan.

Horrez gain, eta araudi honen ondorioetarako, ez da baimenik ematen aipatutako ordezkape-nak iraupen mugatuko kontratuetan egiteko.

7.2. Baja emateko erabakia jakinarazi aurretik gertatuko balitz, aurkeztutako eskaerarako eskubidea galduko da.

7.3. Ordezkapen bakarra onartuko da diruz lagundutako kontratu bakoitzeko.

7.4. Kontratu berririk egiten ez bada nahiz ordezkapen bat baino gehiago egon bada eman-dako dirulaguntza hainbanatuko da, eta dagozkion zenbatekoa eta interesak itzuli beharko dira.

7.5. Iraupen mugatuko kontratuen kasuan, kontratuan ezarritako amaiera eguna baino lehen kontratatutako pertsonak langilearen beraren borondateagatik, hiltzeagatik, lanerako ezin-tasunagatik edo enpresaren borondatez kanpoko zioengatik baja hartuko balu, emandako dirulaguntza hainbatu egingo litzateke, eta dagozkion zenbatekoa itzuli eta interesak ordaindu beharko lirateke.

7.6. Oro har, araudi honen ondorioetarako, ez dira enpresaren borondateaz kanpoko zioak izango kaleratze kolektiboak, ezinbesteko kausen ondorioz izan ezean, eta geroago administra-zio eskudunak egokituz, desegokituz edo baliogabetzat jo arren.

8. artikulua. Laguntzen zenbatekoak

8.1. Deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak dirulaguntza hauen bidez gauzatuko dira:

— Kontratu mugagabeak: 6.000,00 euro kontratatutako gizon bakoitzeko, eta 7.000,00 euro kontratatutako emakume bakoitzeko. Zenbateko horiei 1.000,00 euro gehituko zaizkie kontratu bakoitzeko, kontratatutako pertsonak 45 urte beteta baditu edo urte gehiago badu kontratazioa hasten denean.

— Iraupen mugatuko kontratuak: 300,00 euro kontratuko hilabete bakoitzeko gizonak kontratatuz gero, eta 400,00 euro emakumeak kontratatuz gero. Zenbateko horiei 50 euro gehituko zaizkie hilabete bakoitzeko, kontratatutako pertsonak 45 urte beteta baditu edo urte gehiago badu kontratazioa hasten denean. 12 hilabetetik gorako aldi baterako kontratuetan, hau izango da dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa: modalitatearen arabera (gizona edo emakumea, eta kontratatutako pertsonaren adina), 12 hilabeteko aldi baterako kontratuari dagokiona.

8.2. Lanaldi partzialeko kontratu mugagabeen kasuan, emango den dirulaguntza kontratatu-tako lanaldiaren heinekoa izango da. Era berean, lanaldi murrizketen kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa benetan lan egiten den lanaldiaren heinekoa izango da, baldin eta gutxieneko lanaldia ehuneko 70ekoa bada, 4.2. apartatuan zehaztu bezala.

Ez da dirulaguntzaren zenbatekoa handitzeko eskubiderik izango dirulaguntza esleitu ondoren lanaldia handitzeagatik edo esleitutako iraupen mugatuko kontratuak handitu edo luzatzeagatik.

Iraupen mugatuko kontratazioen kasuan, ez dira diruz lagungarritzat joko langilea ERTE egoeran egoniko aldiak, eta egokitutakoa baino gehiago jasorikoa kasuan kasuko interesekin batera itzuli beharko da.

8.3. Laguntzen zenbatekoak ezin daiteke izan kontratatutako pertsona langabeengatik enpresak dituen soldata kostuen eta Gizarte Segurantzako kuoten baturaren ehuneko 75 baino handiagoa. Frogagiri moduan aurkeztutako dokumentazioa ikusirik (12.5 apartatua), egiaztatzen bada ehuneko hori gainditzen duela, jasotako soberakina eta dagozkion interesak itzuli egingo dira.

9. artikulua. Emateko prozedura eta hura izapidetzeko eskudun diren organoak

9.1. Dirulaguntza emateko prozesua lehia irekia izango da. Deialdi honen ondorioetarako lehia librea funtsak eskaerak jaso ahala banatzeko prozedura da, sarrera erregistroaren hu-rrenkera lehenetsiaren arabera eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badira, aurrekontu hornidurek ahalbidetu arte. Aurkeztutako dokumentazioa osagabea bada eskatzaileak eskatu-tako dokumentazio osoa aurkezten duen data izango da aurkezpenarena.

9.2. Aurrekontua agortutakoan, Arabako Foru Aldundiak erabakia emango du deialdian erabilgarri dagoen aurrekontua agortuzat joz. Erabilgarri dagoen kredituaren zenbatekoa agortzen den unearen ondoren jasotako eskaerak erreserbako eskaeren zerrenda batean geratuko dira. Uko egitearen, ezarritako baldintzak ez betetzearen eta beste edozein zioen ondorioz geldikinak geratuz gero, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak dirulaguntzak esleitu ahaliko dizkie zerrenda horretan sartutako eskaerei eskabidea aurkezteko ezarritako ordena betez eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontua ixteko datak ahalbidetzen badu.

9.3. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak izapidetuko du eta dirulaguntza proposamen arrazoituak organo eskudunari igorriko dizkio. Kudeaketa horretan sor litezkeen gorabeherak ebazteko batzorde bat eratuko da. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendariak, Zuzendaritza horren zerbitziburutzak eta zerbitzu horretako teknikari batek osatuko dute. Idazkari jardungo du teknikari horrek.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epeak eta modua

10.1. Eskaerak aurkezteko epea laguntza hauek indarrean jartzen direnean hasiko da eta 2022ko azaroaren 2a, 14:00etan bukatuko.

10.2. Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen erregistro elektronikoa, berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/arabako-enpresetan-kontratazioa-sustatzeko-laguntzak>).

AFAren egoitza elektronikoa zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoa identifikatzea, ziurtagiri elektronikoa baten edo BAKQ sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

10.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoa zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

- Enpresaren jarduera azaltzeko memoria.
- Laguntza dakarren lan kontratua, alderdi biek sinatuta, eta Lanbideri behar bezala jakinarazita.
- Kontratututako pertsonaren errolda ziurtagiria.
- Kontratututako pertsonaren Gizarte Segurantzako alta.
- Kontratututako NANA edo AIZa.
- Laguntza xede den kontratazioaren ondoren kontraturiko pertsonaren lan bitzita.
- LEABD (Lan Eskaerari Alta emateko eta Berritzeko Dokumentua) edo kontratatutako pertsona Lanbiden enplegu eskatzailea dela egiaztatzen duen beste dokumentu baliokide bat.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 6 hilabeteetako batez besteko plantillari buruzkoa (kontratututako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratua egin den eguneko batez besteko plantillari buruzkoa (kontratututako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona).

10.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

10.5 Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak ofizios egiaztatuko ditu honako datu hauek administrazio eskudunean:

- Zerga betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa.
- Eskatzailearen zerga egoitzari buruzko informazioa.
- Informazioa, ea ordaindu den Ogasunean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa.

Eskatzaileak ofiziosko egiaztapen horren aurka egin ahal izango du. Hala eginez gero, eskatzaileak aurreko betebeharrak bete dituela egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko ditu laguntza eskabidean.

10.6. Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkorekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzule.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

10.7. Faktura elektronikoki aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektronikoki kualifikatuaren eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

10.8. Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketaren zenbatekoa, baldin eta 2022ko ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabaloa atzerriko monetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1 Organo eskudunak dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke Foru Gobernu Kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazio auzietarako epaitegietan, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea

12.1. Dirulaguntzen likidazioa administrazio ebazpenean agindu bezala gauzatuko da, bertan zehazten diren baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Kontratu mugagabeen kasuan, ebazpena onestean dirulaguntzaren ehuneko 70eko lehenengo ordainketa egingo da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa; gainera, aitortu beharko da gainerako ehuneko 30a ordaindu beharra dagoela, justifikazioarekin.

Gainerako ehuneko 30a ordainduko da enpresa onuradunak 12.5 puntuan zehaztutako justifikazio dokumentuak entregatu ondoren.

Justifikazioko kontabilitate dokumentua egingo da Arabako Foru Aldundiak PFEZaren kasuan kasuko atxikipenen diru sarrerak egiaztatu ondoren.

12.3. Iraupen mugatuko kontratuen dirulaguntzetan, dirulaguntzaren ehuneko 100 ordainduko da, hura emateko ebazpena onestean justifikatu behar den aurrerakinaren kontzeptuan.

Justifikazioko kontabilitate dokumentua egingo da Arabako Foru Aldundiak PFEZaren kasuan kasuko atxikipenen diru sarrerak egiaztatu ondoren.

12.4. Dirulaguntzak bide elektronikotik justifikatuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzule.

12.5 Arabako Foru Aldundiak ordaindutako dirulaguntza justifikatuztat jotzeko, eta kontratu mugagabeen kasuan gainerako ehuneko 30a ordaintzeko, erakunde onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du 2023ko azaroaren 30eko 14:00ak baino lehen:

– Nominen kopiak (kontratu bukaerako kalte-ordainak barne, halakorik izanez gero) 12 hilabeteko edo hortik beherako kontratuen kasuan, eta diruz lagundutako kontratazioaren osteko 12 hilabeteetakoak iraupen handiagoko kontratuen edo kontratu mugagabeen kasuan. Ordezkapen bat egonez gero, hileko horiek kontratatutako lehen pertsonaren eta ordezkorearen nominekin osatuko dira. Era berean, eta ERTEak eragindako langileen kontratu mugagabeen kasuan, lehenago ezarritako 12 hilabeteko aldia gehitu egingo da langilea ERTEn egon den denborarekin.

– Aipatutako nominen ordainagiriak. Nominak ordaindu izanaren frogagiritzat hartuko dira banka elektronikoen bidez egindako transferentzia aginduak eta/edo banku laburpenak, ordainketaren ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa eta data zehaztuta dituztenak.

– Langileen izen zerrenda eta kotizazioen likidazioen zerrenda. Kontratuak irau duen hilabeteei dagozkien agiri horiek guztiak, 12 hilabeteko edo hortik beherako kontratuen kasuan edo dagokion aldia, eta kontratazioaren osteko 12 hilabeteetakoak edo dagokion aldiaren kasuan iraupen handiagoko kontratuen edo kontratu mugagabeen kasuan.

– Diruz lagunduta kontratatutako pertsonaren lan-bizitza eguneratua.

– Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

a) Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopiak jatorrizko dokumentuekin bat datozeela.

b) Dirulaguntza honetaz gain, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.

12.6 Erakunde onuradunak dagozkin Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa sartu beharko du, eta Arabako Foru Aldundiak egiaztatu beharko ditu ordainketa horiek eta dagokin justifikazioaren txostena egin beharko du. Baldin eta egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.7. Halaber, jasotako zenbatekoak itzuli eta dirulaguntza ordaindu zen unetik dagozkion legezko interesak eskatuko dira laguntzak jaso dituzten pertsonak/enpresek oinarri hauetan, emateko ebazpenean eta aplikatu behar diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

12.8. Itzultzeko prozedurarako Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutako beteko da.

13. artikulua. Kontrola, ebaluazioa eta ikuskapena

Arabako Foru Aldundiak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetarako zuzen aplikatzen direla bermatzeko behar diren kontrol eta ebaluazio ekintzak egin ahalko ditu, eta enpresa onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri oro aurkeztu beharko dute.

14. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntza bateraezina izango da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak kontzeptu eta xede beragatik emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntza mota lortzearekin, salbu eta Gizarte Segurantzak eginiko murrizketekin eta sozietateen gaineko zergaren murrizketekin.

Ez dira bateragarritzat joko estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak emaniko hobariekin hornituriko kontratuak.

Laguntzen deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Ondorio horietarako, Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak, 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ez dela izango 200.000 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

15. artikulua. Eskaeran jarritako datuen aldaketa

15.1. Aurkeztutako eskaeretan jarritako datuetan gertatzen diren aldaketak jakinarazi beharko zaizkio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari.

Informazio hori aztertuta, Arabako Foru Aldundiak hasieran esleitu eta aurreratutako kopurua aldatu ahalko du eta, kontratazioa gertatzen den ezaugarriak edo baldintzak nabarmen aldatuz gero, ordaindutako dirulaguntza eta dagozkion interesak itzultzeko eskatu ahalko du.

15.2. Eskaeran jasotako datuak aldatzera eraman duten arrazoiak jakinarazten ez badira, dirulaguntza itzultzeko zioa izan ahalko da, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz aldaketa horrek dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea ekarri badu.

15.3. Lanaldi murrizketen kasuan, diruz lagundu daitekeen aldiaren benetan lan egindako lanaldiari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa hainbanatuko da, eta soberan jasotako zenbatekoa itzuli egingo da, hala badagokio.

15.4. Hainbat enpresaren artean langileak subrogatuz gero, emandako dirulaguntza osoa itzuli beharko da, laguntza izendunak direlako. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneko Zerbitzuak banaka balioztatuko ditu, salbuespen gisa, autonomo bat merkataritza sozietate batean eratzen denean, eskubide, betebeharrak eta gainerako lan baldintza guztietan subrogatuta, baldin eta uste bada bi erakunde kontratugile horiek bata bestearen jarraipena direla edo bate-tik eratortzen direla, eta egiaztatzen bada emakidan ezarritako gainerako betekizunak betetzen jarraitzen dutela.

16. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio deialdi honen oinarri espezifikoak interpretatzeko, bai eta oinarriok behar bezala aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ebazpenen bitartez garatzeko ere.

17. artikulua. Enpresaren deslokalizazioa

Enpresen deslokalizazioari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduaren 43., 44., 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira.

18. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunak hari berriaz uko egiten ez badio emateko ebazpenean ezarritako baldintzetan onartu dela ulertuko da.

19. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzaren, araudia onartzen duena, baita dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak ere.